

1999ko MAIATZAREN 26ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziako maiatzaren hogeita seiean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Ibarburen Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz zinegotziak ez dira agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- LANGILE LABORALEN FUNTZIONARIZAZIOA

LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA

IKUSIRIK.- Udaleko pertsonal-plantila berritu eta indarreko legedia egokitzeko izapidetu den espedienteak.

IKUSIRIK.- Oraindaino Udalean indarrean zegoen Lanpostuen Zerrendari buruzko estudioa egin beharra zegoela, egoki izanez gero, hori berritu eta indarreko araudira egokitzeko, bai bere egitura, kontzeptu eta elementu konfigurazailuetan.

IKUSIRIK.- Euskal Funtzio Publikoaren Lege-Erreforma berria jarraituz izapidetu den espedienteak, Lanpostuen Zerrenda aldatzeko beharra agerian utzi duela.

IKUSIRIK.- Prozesuaren ondorioz LZ berria egin dela, eta beharrezkotzat jotzen ziren aldaketa guztiak egin direla, bai mailetan, bai lanpostu

bakoitzari egotzitako funtzioetan, beti ere, ahal zen neurrian, lanpostu guztietan irizpide berak aplikatuz.

KONTUAN HARTURIK,- Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (EHAA, 144 zenbakia), Autonomia Erkidegoko Funtzionarioen arau erregulatzailerak ezartzen dituenak, bere 13 eta 19 artikuluetan xedatutakoa, eta lege hori aldatu duen azaroaren 7ko 16/1997 Legeak (EHAA, 221 zenbakia) xedatutakoa Lanpostuen Zerrendari buruz: eduki behar dituen zehaztasunak, aprobatzeko izapideak, e.a.

KONTUAN HARTURIK,- Ondorengo arauetan xedatutakoa: lehenengo, 1989ko Euskal Funtzio Publikoaren 77 eta ondorengo artikuluetan xedatutakoa; bigarren, Euskadiko Foru eta Toki Administrazioetako Pertsonalaren Enplegu Baldintzak arautzen dituen Institutuzio-Sindikatu arteko XIV Akordioaren indarreko testuaren 70 eta 78 arteko artikuluetan xedatutakoa aipatu pertsonala dituen ordainsari-eskubideei buruz; hirugarren, abenduaren 22ko 343/1992 Dekretuan (EHAA, 253 zenbakia), Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsariei buruzkoak; eta laugarren, abenduaren 15eko 370/1998 Dekretuak, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen 1998ko Ordainsariei buruzkoak, xedatutakoa funtzionario publikoen ordainsari-kontzeptu ezberdinei buruz.

KONTUAN HARTURIK,- Udal Korporazioak pertsonalaren plantila eta lanpostuen zerrenda onartzeko egotzita duen eskuduntza, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1.k) artikulua ezarritakoaren arabera.

Ikusirita aipatu xedapenak eta alikaziozkoak diren gainerakoak, aho batez, ondorengo ERABAKIA onartzen da:

- 1.- LIZARTZAko Udaleko LANPOSTU ZERRENDA berria onartzea, Eranskin banaezin modura aparteko orrian jasoa atxikitzen dena.
- 2.- Hura Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.
- 3.- Erabaki honen eragina jasoko duen pertsonalari erabaki hori jakinaraztea.
- 4.- Interesatu guztiei jakinaraztea honako erabaki honek bide administratiboa agortzen duela, eta nahi izanez gero, horren aurka aurkez daitezkeela: batetik, birjarpeneko helegitea, Udalbatzaren aurrean aurkeztuko dena, jakinarazpena egiten denetik hilabetera, edo bestela administrazioarekiko auzi-helegitea, Bilbon, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Auzitegi gorenean, Administrazioarekiko auzi-gaien Aretoaren aurrean. Horrek ez du kentzen bakoitzaren eskubideak defendatzeko egon litezkeen beste akzio edo helegiteak aurkezteko eskubidea.

LANPOSTUEN ZERRENDA BERRIRAKO PROPOSAMENA

FUNTZIONARIOAK

IDAZKARIA

B Taldea – 23 Maila

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

D Taldea – 14 Maila

LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA

D Taldea – 13 Maila

OFIZIOETAKO PERTSONALA

D Taldea – 16 Maila

GARBITZAILEA

E Taldea – 8 Maila

GIZARTE LAGUNTZAILEA

B Taldea – 17 Maila

PERTSONALA LABORALA

Aldibaterakoa: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA

LIZARTZAKO UDALAREN ERABAKIA, UDALEKO PERTSONALAREN ORDAINSARI OSAGARRIEN ZENBATEKOAK ONARTZEN DITUENA

IKUSIRIK.- Pertsonal-plantila aldatzeko eta indarreko legedira egokitzeko gauzatu den prozesua.

IKUSIRIK.- Onartu berri den Udaleko Lanpostuen Zerrendak zenbait aldaketa sartzen dituela, lanpostuen mailetan, eta ondorioz, ordainsarrietan.

IKUSIRIK.- Lanpostu bakoitzaren berriazko osagarria, aitortua duena edo aitortzen zaiona, Udalak finkatzen duela hobe deritzon bezala, aplikagarri den araudiak ezartzen dituen mugen barne.

KONTUAN HARTURIK.- Ondorengo arauetan xedatutakoa: lehenengo, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (EHAA, 144 zenbakia), Autonomia Erkidegoko Funtzuinarien arau erregulatzailerak ezartzen dituenak, bere 79 artikuluan xedatutakoa; bigarren, abenduaren 22ko 343/1992 Dekretuaren 6 artikuluan (EHAA, 253 zenbakia) xedatutakoa, berriazko osagarriaren aintzatespenari buruz; eta hirugarren, azaroaren 19ko 267/1996ko Dekretuan (EHAA, 235 zenbakia) xedatutakoa, Euskal Administrazio Publikoko

funtzionarioen 1996ko ordainsariei eta horien zenbatekoari buruzkoa.

KONTUAN HARTURIK.- Udal Korporazioak pertsonalaren plantilaren lanpostu bakoitzaren ordainsari osagarriak finkatzeko egotzita duen eskuduntza, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1.i) artikulua ezarritakoaren arabera.

Ikusita aipatu xedapenak eta aplikaziozkoak dirn gainerakoak, aho batez ondorengo erabakia onartzen da:

- 1.- Udaleko lanpostuen ordainsari osagarriak finkatzea, erabaki honi Eranskin banaezin modura aparteko orrian atxikitzen zaion zerrendaren arabera.
- 2.- Erabaki honen eragina jasoko duen pertsonalari hori jakinaraztea, baita langileen ordezkariari ere.
- 3.- Interesatu guztiei jakinaraztea honako erabaki honek bide administratiboa agortzen duela, eta nahi izanez gero, horren aurka aurkez daitezkeela: batetik, birjarpenezko helegitea, Udalbatzaren aurrean aurkeztuko dena, jakinarazpena egiten denetik hilabetera, edo bestela administrazioarekiko auzi-helegitea, Bilbon, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Auzitegi Gorenean, Administrazioarekiko auzi-gaien Aretoaren aurrean. Horrek ez du kentzen bakoitzaren eskubideak defendatzeko egon litezkeen beste akzio edo helegiteak aurkezteko eskubidea.

ERANSKINA: LIZARTZAKO UDALEKO LANPOSTUEN ORDAINSARI OSAGARRIEN ZENBATEKOAREN FINKAPENA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

Zenbatekoa: 1.715.712,- pezeta, urteko.

Lanpostuaren baldintzak: Erantzunkizun berezia du, eta zailtasun teknikoa, batetik, Udaleko gestio administratibo osoaren erantzule zuzena delako, eta bestetik, antolakuntzaren piramidearen gailurrean dagoelako eta bere menpe dituelako gainerako lanpostu guztiak.

Inkonpatibilitatea du beste edozein jardueretan aritzeko; Udalari dedikazio eskusiboa zor dio.

Beti egon behar du prest edozein bileratara joateko eta edozein desplazamendu egiteko, ohiko lanorduetan baita horietatik kanpo ere, eta ez du aukerarik lanorduz kanpo egindako orduengatik konpentsazio ekonomikorik, ez ordu libererik jasotzeko.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Zenbatekoa: 1.310.016 pezeta, urteko.

Lanpostuaren Baldintzak: Ematen zaizkion lan konkretuen izapidetzaren erantzunkizuna, baita eskudiruaren maneia ere.

Ohiko lanaldia zehaztean disponibilitatea denbora aldetik, eta balizko berezietan lanaldi etena egitea toka dakioke.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA (LIBURUTEGIA)

Zenbatekoa: 1.137.132 pezeta, urteko.

Lanpostuaren Baldintzak: Ematen zaizkion lan konkretuen izapidetzaren erantzunkizuna.

Ohiko lanaldia zehaztean disponibilitatea denbora aldetik, eta balizko berezietan lanaldi etena egitea toka dakioko.

OFIZIOETAKO PERTSONALA

Zenbatekoa: 1.509.468 pezeta, urteko.

Lanpostuaren Baldintzak: Bere lanak egiteko dedikazio osoa, eta disponibilitate osoa denbora guztian.

Ohiko lanaldia zehaztean disponibilitatea denbora aldetik, eta balizko berezietan lanaldi etena egitea toka dakioko.

GARBITZAILEA

Zenbatekoa: 1.134.492 pezeta, urteko.

Lanpostuaren Baldintzak: Bere lanak egiteko dedikazio osoa, eta disponibilitate osoa denbora guztian.

Funtzioek berekin dakarten lan ezatseginak.

Ohiko lanaldia zehaztean disponibilitatea denbora aldetik, eta balizko berezietan lanaldi etena egitea toka dakioko.

GIZARTE LAGUNTZAILEA

Zenbatekoa: 1.131.360 pezeta, urteko.

Lanpostuaren Baldintzak: Bere lanpostuaren berariazko lanen gestioaren eta antolakuntzaren erantzunkizuna, bere zerbitzuaren

beharra duten pertsonekin eduki beharreko harreman zuzenari aipamen berezia egiten zaiolarik.

Ohiko lanaldia zehaztean disponibilitatea denbora aldetik, eta balizko berezietan lanaldi etena egitea toka dakiok.

Lan honetan jarduteak arrisku osagari bat du, zuzenean harremanetan dagoelako egoera marginalekin.

3.- ZABOR BILKETA ZERBITZUA

Jakinerazi digutenez, 1999ko Urtarrilaren 1etik aurrera, eta aurrekoak utzi egin duela eta, gure herriko Zabor Bilketa Zerbitzua, GSM S.A. (Gestión y Mantenimiento de Servicios Municipales) Enpresak betetzen du.

Beraz, GSM S.A. enpresak, Lizartzako Zabor Bilketa Zerbitzua betetzea, onartzen da.

4.- AURREKONTUKO KREDITU ALDAKETA

KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 1 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Lizartzako Udal honen 1999ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espediente onestea, 1.278.636,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

5.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

1999ko Ekainaren 13ko HAUTESKUNDEAK

Indarrean dauden Hauteskunde Arauek zehaztutako lege-betebehar guztiak bete ondoren, Udalbatza honek, aipatzen diren hauteskunde mahaia antolatu du, aipatzen diren pertsonekin eta zehazten diren karguekin.

ATALA: 1 - MAHAIA: 1

TITULARRAK

Lehendakaria: ITZIAR ZUBELDIA BELDARRAIN	ENA: 44.140.829
1. Mahaikidea: JUAN MANUEL BALERDI URDAMPILLETA	ENA: 72.437.342
2. Mahaikidea: IMANOL SOROA IBARLUZEA	ENA: 72.445.547

ORDEZKOAK

Mahaiburuarena: JOSE ANTONIO GOGORZA BALERDI	ENA: 72.509.871
--	-----------------

Mahaiburuarena: M^a SOLEDAD UBIRIA MITXELENA ENA: 72.426.465

1. Mahaikidea: M^a VICTORIA BELDARRAIN JAUREGIENA: 15.885.544

1. Mahaikidea: DIONISIO OLAETXEA GARAIKOETXEA ENA: 15.218.192

2. Mahaikidea: M^o MAGDALENA ARROSPIDE ARRATE ENA: 15.910.498

2. Mahaikidea: MIGUEL ALTUNA ZINKUNEGI ENA: 72.424.483

2.- LUR-ZORU HIRITARREZINEKO BAIMEN ETA LIZENTZIA KONTUETAN JARDUKETAK KOORDINATZEN DITUEN 82/1998 FORU DEKRETUA

Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Azaroaren 24ko 82/1998 FORU DEKRETUA, Lur-zoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituena.

Udal honek obligazioa dauka bere ondasuna eta eskubideak defendatzearen beharrezko legezko akzioak egikaritzeko.

Oro har, Udalbatzari dagokion administrazioko eta legezko akzioak egikaritzea.

Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.

Aipatutako gaia dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean, Udal honen izenean jarduteko, ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA Abokatu ahalmentzea, erabaki dut.

3.- Agua de Insalus, S.A.ri , aurkeztutako proiektuaren arabera, obra baimena ematea.

4.- Castor Olaetxeari, Aizpea baserriko teilatuari erretila emateko baimena ematea.

5.- Castor Olaetxeari, Maikinea baserriko fatxada pintatzeko baimena ematea.

6.- Roke Arozenari, Lezinea baserrian obrak egiteko baimena ematea.

7.- PLAZA SORO KOOPERATIBA

IKUSIRIK.- Plaza Soro Kooperatibak aurkeztu duen, Transformagailu Gunea dela eta Iberdrolak egin duen likidazioaren kargu Udala egiteko eskaera.

IKUSIRIK.- Eskaera horri buruz, Udaleko Teknikariak eginiko Txostena Teknikoa.

KONTUTAN HARTUAZ.- Argindarraren akometidari buruzko Erregelamendua onartzen duen, 1982ko Abenduaren 29ko, 312 zenbakidun, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako, 1982ko Urriaren 15eko 2949/82 Errege Dekretuak dioena kontutan hartuaz, akometida eskubideak, abonatu edo eta azken erabiltzaileen kargu izango direla.

Horren arabera, ERABAKI DUT:

Plaza Soro Kooperatibak aurkeztu duen, Transformagailu Gunea dela eta Iberdrolak egin duen likidazioaren kargu Udala egiteko eskaerari ezezkoa ematea.

8.- Iñaki Zarraga Etxeberriari, Lizartzan, asteazkenetan, eta goizeko 8tatik 13 bitarte, 5 metroko luzera izango duen, Fruta eta barazki postu bat jartzeko, baimena ematea.

9.- Iñaki Zarraga Etxeberriari, Lizartzan, asteazkenetan, eta goizeko 8tatik 13 bitarte, 5 metroko luzera izango duen, Fruta eta barazki postu bat jartzeko, luzatutako baimenaren arabera, tasaren likidazioa onartzea erabaki dut.

Tasa: Eguneko eta Postuko 950,- pezta.

10.- Miguel M^a Arozenari, Zortikoa 3.A etxebizitzan, sukalde, bainugela eta zurgintza berritzeko baimena ematea.

11.- M^a Luisa Roderori, Kale Nagusia, 13an teilatu guztia berritzeko baimena ematea, baldintza hauekin:

- Estalkiaren egitura eraberrituko balitz, gai den teknikariak erredaktatutako eta dagokion Elkargoak ikusonetsitako proiektua aurkeztu beharko da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.